

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Berdintasun Zerbitzua

Vitoria-Gasteizko udalerrian genero-berdintasunaren alorrean jarduerak eta proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren berriazko oinarriak. 2021eko ekitaldia

2020ko abenduaren 18an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. ALHAOn argitaratuko dira oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Aurreikusitako dirulaguntzen ildoetako bat hauxe da: Vitoria-Gasteizko udalerrian 2021eko ekitaldian genero-berdintasunaren alorrean jarduerak eta proiektuak bideratzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa. Hara! 2018-2021 aldirako Vitoria-Gasteizko Genero-berdintasunerako IV. Planaren barruan sartzen da deialdi hau.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokorretara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten, zein kasutan itzularaziko den dirulaguntza, zein izango diren arau-hausteak eta abar.

1. Dirulaguntzen ildoak

(3. ildoak) Genero-berdintasunaren alorreko jarduerak eta programak garatzea.

2. Deialdiaren xedea

Emakume-elkarteak eta kolektibo feministak eta LGTBI kolektiboak sendotzen laguntzea, ikuspegi feminista edo genero-ikuspegi argia duten proiektuak finantzatzuz.

Beste entitate batzuen proiektuak bultzatzea, genero-berdintasuna sustatzeko beren jardueraren eremuan —kirola, hezkuntza, arlo soziala, kulturala eta abar—.

3. Baliabide ekonomikoak

3.1. Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailko Berdintasun Zerbitzuaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuko 01 60 2381 4 8139 partidako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira —gehienez 60.000,00 eurokoa da horren zuzkidura—.

3.2. Aldez aurreko tramitazioa izango dute oinarri hauek, azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 56. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta, horrenbestez, dirulaguntzak ematekotan, nahiko kreditu egoki izan beharko du deialdia ebazteko orduan.

Baldin eta hasieran aurreikusitakoa baino diru-kopuru handiagoz hornitzen bada partida hori 2021eko aurrekontuetan, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak, eta ebazpena eman aurretik behar den gastu-dosierra izapidetu, beste deialdi bat egiteko beharrik gabe.

3.3. Dirulaguntzetarako kreditua dela eta, bi atal ezartzen dira deialdian, entitate eskatzaileei dagokienez. Alde batetik, lehentasunez, kolektibo feministak eta LGTBI kolektiboak eta emakume-elkarteak sendotu nahi ditu, eta, bestetik, berriz, elkarte-ehunari genero-berdintasuna sustatzeko jarduerak eta proiektuak bideratzen lagundu. Hortaz, 60.000,00 euroko kopurutik,

36.000,00 euro elkarte feministek eta emakume-elkarteek eta LGTBI elkarteek aurkezten dituzten proiektuetarako izango dira, eta 24.000,00 euro, berriz, bestelako entitateen jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzak emateko. Proiektua aurkezten delarik, bi atal horietako baten barruan identifikatu beharko da entitate eskatzailea. Nolanahi ere, bakoitza zein ataletan sartzen den erabakitzeke ahalmena izango du batzorde teknikoak.

Baldin eta kolektibo feministek eta LGTBI kolektiboek eta emakume-elkarteek aurkezten dituzten proiektuetarako diru-kopurua agortzen ez bada, eman gabe geratzen den zenbatekoa gainerako kolektiboen eskabideetara bideratuko da, eta alderantziz.

4. Eskatzaileak

4.1. Elkarte feministak eta LGTBI elkarteak aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak ere, beren jarduera eremuan —kirola, hezkuntza, arlo soziala, kulturala eta abar— genero-berdintasuna sustatzeko proiektu edo jarduerak bideratzeko.

4.2. Dirulaguntza eskatzen duten pertsona juridiko edo entitateek Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki, edo, bestela, dagokien erregistro publikoan, eta Vitoria-Gasteizen eduki beharko dute egoitza —hala agertu beharko du erregistroan jasota—, behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik.

4.3. Era berean, Vitoria-Gasteizko udalerrria izan beharko dute jarduera-eremua —azken urtean udalerrian gutxienez jarduera bat egin dutelarik egiaztatu ahal izango dute hori, sortu zirenetik urtebete igaro gabekoak salbu—.

4.4. Oinarri orokorretako 3. artikuluan adierazten diren betekizunak bete beharko dituzte elkarteek.

5. Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak

5.1. Elkarte eta entitateek 2021ean —2021eko abenduaren 31 baino lehenago— gauzatzekoak diren jarduera eta proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza, honetara zuzenduta daudelarik:

a. Herritarrak genero-desberdinkeria eta feminismoaren inguruan informatu, sentsibilizatu eta prestatzera.

b. Emakumeen ahalduntzea sustatzea, ikuspegi intersektorialetik.

c. Indarkeria matxisten inguruko informazioa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta esku-hartzea.

d. Feminismoaren memoria historikoaren berreskurapena sustatzea.

e. Zainketen ekonomia feminista sustatzea.

f. Indarkeria matxistaren biktimak aitortu eta erreparatzen laguntzera zuzendutako jarduerak bultzatzea.

5.2. Betebeharrak.

Nornahi iristeko moduko lokal edo espazioetan egin beharko dira proiektuak, dirulaguntza jasotzekotan, Irigarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean —1997ko abenduaren 24ko EHAA— adierazten den moduan.

Proiektuaren publizitatearen eta erabili beharreko hizkuntzen inguruko betebeharreki dago-kienez, oinarri orokorretako 14. puntuan adierazten dena kontuan izan beharko da.

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko dute elkarte esleipendunek, berdintasuna, dibertsitatea, rol-aniztasuna eta erantzunkidetasuna sustatuz, zeharkakotasunez, proiektu osoan eta, batez ere, publizitatean eta komunikazioan.

Gainera, sexu edo generoaren arabera bereizita —gizonezkoak, emakumezkoak, ez binarioak— aurkeztu beharko dira datuak, bai proiektuan, bai justifikazioan.

COVID-19aren pandemiak sortutako egungo egoera dela eta, dirulaguntza jasotzen duen proiektuaren barruan antolatzen diren jarduera edo ekitaldi guztietan agintari sanitarioek unean-unean xedatutako neurriak bete beharko dituzte entitate onuradunek. Era berean, proiektua aldatzeko baimena eman ahal izango da bertan aurreikusi gabeko jarduerak egiteko, dirulaguntzaren xedearekin lotuta badaude, horren xede eta helburuei funtsean eragiten ez badiete eta osasun agintariek kasuan kasu onartzen dituzten neurri sanitarioekin bateragarriak badira. Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzen zaio aldaketa hori baimentzeko eskumena, entitate interesdunak hala eskatzen duelarik.

Betebehar horiek ez betetzeak dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharra ekarri ahal izango du berekin.

5.3. Ez da dirulaguntzarik emango honelakoetarako:

- a. Ikuspegi feminista edo genero-ikuspegi argirik ez duten proiektuak.
- b. Berdintasun Zerbitzuak edo genero-berdintasunerako programa edo planen garapenean inplikaturako bestelako udal zerbitzu, erakunde edo administrazioek lehendik egindako proiektuak.
- c. Oso-osorik Vitoria-Gasteizko udalerrian gauzatzekoak ez diren proiektuak.
- d. Beste udal-, foru- edo autonomia-erakunderen baten (adibidez, Osakidetza) berariazko eskumenekoak diren proiektuak.

6. Eskabideak aurkezteko epea, eta dokumentazioa

6.1. Aurkezteko epea. 20 egun baliodunekoia izango da eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea, deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen denetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokitzuz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

6.2. Informazioa eta dokumentazioa. Berdintasunerako Zerbitzuak informazioa eta aholkularitza eskainiko dizkie elkarteei, zalantzak argitzeko. 945 16 13 45 telefonora deituz edo igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz egin ahalko dira kontsultak. Gainera, ohiko bitartekoak baliatuz jakinaraziko da nola eskainiko den proiektuen diseinuaren inguruko aholkularitza.

6.3. Tramitazioa.

Oinarri orokorretako 4.3 puntuan adierazitakoaren arabera.

Oinarri hauetan eskatzen diren agiriak:

- a. Eskabidea (I. eranskina, eskabide bakarra).
- b. Berariazko eskabidea. Proiektua (II. eranskinaren arabera) —gehienez 12 orrialde, eranskinak eta antzekoak aparte—.
- c. Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkaritza-ahalmena egiaztatzen duen agiria eta elkar-tearen lege-ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun-agiriaren fotokopia.
- d. Banketxearen egiaztageria, kontu-zenbakia eta titularraren izena agertzen dituena (elkar-teak berak izan behar du titular).
- e. Elkar-tearen estatutuen fotokopia.
- f. Zuzendaritza-batzarraren osaera egiaztatzen duen agiri eguneratuta.
- g. Identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia.
- h. Elkar-tea dagokion erregistroan izen emanda dagoela egiaztatzen duen agiri eguneratua.

Eskabidea egiten duten entitateek ez dute e), f) eta g) ataletan adierazitako agiriak aurkeztu beharrik izango, baldin eta Berdintasun Zerbitzuak lehendik baditu eta aldatu ez badira.

Genero-berdintasunean aurrera egiten laguntzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko, esleipendun bakoitzak ezingo du bi dirulaguntza baino gehiago jaso, eta dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango 6.000,00 eurotik gorakoa.

Eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko ezartzen den epean hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

6.4. Agiriak aurkeztea.

Oinarri orokorretako 5 puntuan adierazitakoaren arabera.

7. Balioespen-irizpideak

a. Proiektuaren kalitate teknikoa: 30 puntu.

Proiektuaren formulazioa: 11 puntu.

Ikuspegi feminista interseksionala aintzat hartzea: 10 puntu.

Metodologia parte-hartzailea: 5 puntu.

Proiektuaren berrikuntza-maila: 4 puntu.

b. Elkartearen ibilbidea, berdintasunaren arloan: 10 puntu.

c. Proposamenaren estrategiari dagokionez: 45 puntu.

Proiektua modu kolektiboan egingo da: 10 puntu.

Inpaktu edo eragin soziala du, publiko zabala edo gaitasun biderkatzailea: 10 puntu.

Salaketa-ekintzak barne hartzen ditu, maila lokaletik nazioartekoraino: 5 puntu.

Desberdintasun handiagoko baldintza eta posizioetan leudekeen emakumeak aintzat hartzen ditu: 10 puntu.

Estrategia eta prozesu zabalagoen parte da proiektua, eta hura sendotzera dator: 5 puntu.

Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-zerbitzu, -baliabide edo -neurriak martxan jarriko ditu proiektuak: 5 puntu.

d. Proposamenak eduki hauetakoren bat barne hartzen badu: 10 puntu.

Antolakuntza genero-berdintasunerako aldatzeko prozesuak bultzatzen ditu.

Zainketen hornidura- eta harrera-eredua bidezkoagoa eta jasangarriagoa izan dadin laguntzen du.

Ahalduntze feminista pertsonal, kolektibo eta politikoan laguntzen du.

Indarkeria matxista dela eta herritarren artean informazioa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta esku-hartzea sustatzeko jarduerak egingo dira.

Sexu-dibertsitatearen eta genero-identitateen inguruko informazioa, sentsibilizazioa eta begirunea sustatzen ditu.

e. Euskararen erabilera lehenesten da: 5 puntu.

Gehienez lor daitezkeen puntuak, guztira: 100 puntu.

7.1. Dirulaguntza jasotzekotan, aurreko irizpideen arabera gehienez lor daitezkeen puntuazioaren ehuneko 50 lortu beharko dute proiektuek, gutxienez. Ebazpen-proposamenean, elkarte esleipendunen zerrendaz gain —diruz lagundutako proiektuak eta emandako diru-kopuruak adieraziko dira bertan—, ordeko elkarte eskatzaileak —gehienez lor daitezkeen puntuazioaren ehuneko 50 lortu dutenak— zerrendatuko dira, ordenaturik, esleipendunetakoren batek

dirulaguntzari uko egingo balio ere. Ordezkoen zerrenda horretako elkarteei dagokienez, proiektuak identifikatuko dira, eta baten batek dirulaguntzari uko eginez gero gehienez lortu ahal izango luketen diru-kopurua adieraziko.

7.2. Ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik, bi hilabete izango ditu entitateak dirulaguntza onartzen duen ala uko egiten dion jakinarazteko, uko eginez gero ordezeko entitateek aukera izan dezaten horretaz baliatzeko.

8. Laguntza emateko prozedura

8.1. Konkurrentzia, hau da, alderatu egingo dira eskabideak, eta baloraziorik handiena lortzen dutenei esleituko dirulaguntzak. Onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100era arte finantzatu ahal izango da, 6.000 euroko kopurua gainditu gabe. Hortaz, gerta liteke kreditua ez iristea dirulaguntza jasotzen proiektuen artetik balorazio txikiena izan duenaren ehuneko 100 finantzatzeko.

8.2. Aurreko atalean adierazitako aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a. Jarduera edo proiektua garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuek nahitaez 2021ean eginak izan beharko dute, eta eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko baliotik gorakoak.

b. Hauetatik sortutako gastuetarako emango da dirulaguntza:

Komunikazio-kanpainak: proiektuari lotutako itzulpenak, prentsa, irratia, kartelak, inprenta...

Prestakuntza eta hitzaldiak: jarduera horiek burutzeko langileak kontratatzea.

Udal zentroetako espazioak erreserbatzen badira, 7.11 ordenantzaren —Kultur eta biltzar ekipamenduak, ekipamendu polifuntzionalak eta gizarte-etxeak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak— 4 bis artikuluan aurreikusten den salbuespena aplikatuko da, dirulaguntza jaso duen jardueraren bat egiteko bada, eta horretarako ezarritako prozeduraren arabera. Nolanahi ere, aretoak edo baliabide teknikoak direla eta sor litezkeen gastuak aurrekontuan jaso beharko dira, diruz lagundu daitezkeen gastuak izango badira ere.

Material suntsikorra erabiltzetik sortzen diren gastuak eta ekintza programatuetatik sortzen diren bestelako gastuak.

Proiektuan parte hartzeko gonbita egin zaien adituen ostatu, bidaia eta dietetatik sortzen diren gastuak.

c. Elkartearen menpeko langileen ordainsarien gastuei dagokienez, proiektuan jasotzen diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren langile espezializatuen ordainsariak baino ez dira joko dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat.

d. Ezingo da diruz lagundu daitezkeen gastua izango BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.

e. Ezingo dira gastutzat sartu elkarte eskatzaileen azpiegiturekin, inbertsio-gastuekin edo lokalak mantentzeko lanekin zerikusia dutenak, ezta informatika-materiala edo ekipo teknikoak erostearen ondorio direnak ere.

f. Ezta elkarte edo organizazioko kideen dieta edo bidaiak sortzen dituzten gastuak ere.

g. Ez dira diruz lagunduko emakumeei arreta eman edo laguntzeari dagozkion gastuak —laguntza psikologikoa, juridiko-legala, materiala eta abar—.

h. Zeharkako gasturik sortzen bada kudeaketaren ondorioz, ezingo dute gainditu emandako dirulaguntzaren ehuneko 6a.

8.3. Elkarte eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko ebazpen-proposamenean jasoko den dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko orduan.

9. Dirulaguntza ordaintzea

Bi zatitan ordainduko da dirulaguntza. Dirulaguntza osoaren ehuneko 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da. Gainerako ehuneko 20a jarduera bukatu eta gastuak justifikatu ondoren ordainduko da.

10. Dirulaguntza justifikatzea

Oinarri orokorretako 13. puntuan adierazitakoaren arabera, zehaztapen hauekin:

10.1. Justifikatzeko epea.

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek justifikatu egin beharko dute emandako dirulaguntza, oroitidazki deskriptiboa eta ekonomikoa aurkeztuz, bi hilabeteko epean aurkeztu ere, proiektuan aurreikusitako jarduerak bukatzen diren egunaren biharamunetik.

10.2. Justifikatzeko sistema.

Justifikatzeko dokumentazioak honako hauek bildu beharko ditu:

Egindako proiektuaren oroitidazki deskriptiboa, berariazko oinarrien IV. eranskinaren arabera.

Oroitidazki ekonomikoa, oinarri orokorretako 13.4 puntuan adierazitakoaren arabera.

10.3. Dirulaguntza justifikatzeko aurkezten den dokumentazioa ez bada zuzena, edo agiriren bat falta bada, okerra zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko galdatuko dio Berdintasun Zerbitzuak dena delako elkarteari. Hori ez betetzeak jasotako kopurua itzuli beharra ekar lezake berekin.

10.4. Aurkezten diren fakturen zenbatekoak, guztira, ordaindutako dirulaguntza osoa hartzen ez badu, edo proiektua gauzaterik izan ez bada, Vitoria-Gasteizko Udaleko Diruzaintzari itzuli beharko dio elkarrekin justifikatu gabeko diru-kopurua, Berdintasun Zerbitzuak zehazten duen kontu-zenbakian eta hark esandako moduan.

11. Azpikontratazioa

Pertsona eta entitate onuradunek jarduerak azpikontratatu ahal izango dituzte, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.2 artikuluetan xedatutakoaren ildotik. Era berean, aipatutako 29. artikuluen 7. puntuan xedatutakoaren ildotik, berarekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahal izango du onuradunak jarduera gauzatea, alde aurretik dirulaguntza eman dion organoaren baimena eskuratzen badu —III. eranskineko eskabide-eredua baliatuz— eta kontratazioa merkatu-baldintzen arabera egiten bada.

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeko baimena emateko eskumena.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 18an

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO